

Lanpostuen defentsa eta orain arte lapurtutakoa itzultzea izango dira ELAren aldarrikapen nagusiak Mahai Orokorrean

37,5 ORDU = 9.000 LANPOSTU GUTXIAGO



Murrizketa-politiken ondorioz urtez urte gutxituz joan dira Eusko

Jaurlaritzaren aurrekontu publikoak, bai zerbitzu publikoei eta bai gizarte-babesari dagokionez. (2009az geroztik BPGaren 2 puntu). Honen ondorioz pertsona

asko eta asko zerbitzurik eta laguntzarik gabe geratu dira, enplegu publikoa suntsitu da eta lan-baldintzak narriatu dira. Gainera botere ekonomikoaren aginduak itsu-itsuan bete dituzte, zerbitzu publikoak desmuntatuz patronalek negozio egin dezaten gizartearen beharizaneekin.

Eusko Jaurlaritza berriak, hauteskunde-kanpainan esandakoa bete beharrean, 1.200 milioitik gorako murrizketa proposatu du aurrekontuetarako. Murrizketa hauek ondorio kezagarriak izango dituzte enpleguan, zerbitzu publikoetan eta gizarte-babesean.

Onartezina da, are eta gehiago krisi abagune honetan, Eusko Jaurlaritzak orain arteko murrizke-

tak finkatzea eta berriak iragaritzea, batez ere alternatibak egon badaudenean.

Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diogu EAEko zerbitzu publikoak handitzearen eta garatzearen aldeko apustua egin dezan, inbertsioa eta baliabideak ugalduz, gutxienez Europar Batasuneko batez besteko inbertsioaren parera iritsi arte, Horretarako badaude alternatibak, esaterako politika fiskala goitik behera aldatzea. Hori eginez gero, zerbitzu publikoak zein gizarte babeserako zerbitzuak garatuz, aberastasunaren banaketa bidezkoagoagoa lortzeko aukera egongo litzateke, enpleguari bultzada handia ematearekin batera.

HORI DELA-ETA, MAHAI OROKORREAN HURRENGO PUNTUAK JARRIKO DITUGU

1.- Enplegu publikoa sortzea: Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu enplegua suntsitzea helburu izan duen azken urteotako politika errotik aldatzeko.

Horretarako, **lehentasunezkoa da 35 orduko asteko lanaldiari eustea eusko administrazio publiko osoan (irakastorduek eta ratioak hezkuntzan).**

Gogora ekartzen dugu euskal funtzio publikoaren 35 orduko akordioa Mahai Orokorraren 2000ko abenduaren akordioa izan zela, euskal gehiengo sindikalak deitutako greba orokorraren ondorioz hartu zela eta ordezkartitza zuten lau sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zutela, helburu jakin batzuei begira: enplegua sortzea (orduko langabezia-tasa oraingoa baino 6

puntu txikiagoa zen) eta prekarietatea mugatzea.

Gaur arte mantendu da 35 orduko lanaldia, baina Eusko Jaurlaritza berriak bere egiten badu 37,5 orduko lanaldia eta hezkuntzan irakastorduek eta ratioak igotzea erabakitzen badu 9.000tik gora lanpostu suntsituko dira, eta Jaurlaritza izango da eruduna. Hori gehitu behar zaio jadanik suntsitu den enplegua IT, baimen eta amortizazioen politika murriztaileekin.

Asteko 37,5 orduko lanaldia ezarriko balitz hauxe izango zen lanpostuen suntsiketa:

■ **Osakidetza:** 2.500etik gora lanpostu.

■ **Irakaskuntza:** 6.000tik gora lanpostu.

a) **Irakastorduek gehitzea:** 4.000tik gora lanpostu.
Irakaskuntza publikoa: 2.000tik gora; **Itunpeko irakaskuntza:** 1.500etik gora; **EHU:** 400etik gora; **haureskolak:** 200etik gora.

b) **Ratioak igotzea:** 2.000tik gora lanpostu.

■ **Autonomiako gobernua:** 300etik gora lanpostu.

■ **Justizia:** 170etik gora lanpostu.

■ **Sozietate eta enpresa publikoak:** 400etik gora lanpostu.



Horregatik exijitzen diogu Eusko Jaurlaritzari 35 ordu asteko lanaldiari eusteko. Kontrako erabakia hartuz gero, autogobemnuaren eta sinaturiko akordioaren aurka-koa izateaz gain, nabarmen prekarizatu-ko luke zerbitzuaren kalitatea, eta herri honetako enplegurako hondamendia izango litza-teke.

Exijitzen diogu zerbitzu publikoak pribati-zatzeari uzteko –mahai orokorraren azken akordioan hala hitzartu baikenuen–, eta baita enpresa eta sozietate publikoetan eta azpikontratetan enplegurik ez suntsitzeko ere. Halaber, eskatzen diogu ordezkapenen politika aldatzeko, eta ordezkapenak lehe-nengo egunetik egitea.

2.- Soldatak: ELAk azken bi urte eta erdi hauetan galdutako eros-ahalmena berres-

kuratzea exijitzen du. Honek 2012ko amaieran eros-ahalmenaren ia %20a suposatzen zuen. Borondate politiko kontu hutsa da administrazio publikoko langileen eros-ahalmena berreskuratzeak formulak bilatzea, aparteko ordainsaria barne. Horretarako badaude alternatibak, eta Hego Euskal Herriko beste erakunde eta administrazio batzuek erabili dituztela jada.

3.- Lan-eskubideak berreskuratzea: Aldi baterako ezintasuneko bajen %100, ordezkapenak, lan-kargak jaitsi, erretiroak...

Mahai orokorrean negoziatu eta hitzartu diren eskubideak, gero Madrilgo eta Gasteizko gobernuak muniturikoak, berreskuratzeak exijitzen dugu.

Ez da egia esatea gai horietan ez dagoe-

la jarduteko tarterik, borondate kontu hutsa da, ikusi besterik ez dago nola eskubide horiek aitortu zaizkien Hego Euskal Herriko hainbat erakunde eta administrazioetako lan-gileei.

4.- Negoziazioa euskal esparrua errespetatzea: EAEn diharduten langile guztiei lan-baldintzak hemen negoziatu ahal izateko eskubidea aitortzea; ez onar-tzea gure eskumenetan kanpoko eskusar-tzerik; eta Euskal Herrian behar ditugun eta nahi ditugun zerbitzu publikoak erabaki ahal izatea.

5.- Defentsa kolektiborako akordioak indarrean iraunaraztea: Eskubide sindi-kalen akordioa errespetatzea kanpoko esku-sartzerik onartu gabe.

6.- Euskara: Euskal administrazio publiko-an benetako aurrerapausoak emateko eskatzen dugu.

Ez dugu onartuko munitzeten negozia-zioa. Diru sarrerak handitu eta zerbitzu publikoak garatu behar ditugu ongizate estatua hobetu nahi badugu. Hori da ELAren alternatiba. Eta prest gaude mobili-zatzeko helburu horiek lortzeko borrokan. Zentzu honetan ezinbestekoa da honakoa exijitzea klase politikoari: egungo politiken norabidea aldatzea, kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak bultzatu eta enplegu eta lan-baldintza duinak sortzeko.



www.ela-sindikatu.org

Afiliazio orria

Hoja de afiliación

NAN/EIZ:
DNI/NIE

Emakumezkoa / Mujer ☐
Gizonezkoa / Hombre ☐

Lantokia:
Empresa

Izena:
Nombre

G.S.ko kotizazio kontu kodea:
Código cuenta cotización S.S.

1.abizena:
1º apellido

Helbidea:
Domicilio

2.abizena:
2º apellido

Herria:
Localidad

Jaiotze herrialdea:
Lugar de nacimiento

Jaiotze data:
Fecha nacimiento

Lanbidea:
Profesión

Kategoria
Categoría

Herria:
Localidad

P.K:
C.P.

Lan-hitzarmena
Convenio

Helbidea:
Dirección

Banku edo Aurrezki Kutxa:
Banco o Caja de Ahorros

Herrialdea:
Provincia

Kontuko zenbakia:
Nº de cuenta

Telefona
Teléfono

Mugikorra:
Móvil

Data / Fecha

Sinadura / Firma

E-posta:
E-mail

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titullarrak eskubidea izango du Sindikatuen aurrean, datuetara iritsi, beroiek zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.